



IKASLE OHIA: ZURE ESKURA





Ikasle ohi agurgarria,

Heldu da Lauaxetan ikasle zareneko garaiaren amaiera, baina etorkizunari begira, gure harremana edota zurea ikaskideekin, bidean mantentzea gustatuko litzaiguke.

Zugan pentsatu eta zure interesekoa izan daitekeen beste zerbait eskaintzeko konpromisoa hartu nahi dugu.

Ez da erraza, badakigu; izan ere, ikastola 1977an sortu zela kontuan hartuta, adin eta bizi-une askotako ikasle ohiak ditugu, baina ahalegin hori egin nahi dugu.

Horregatik, zure interesekoak izan daitezkeen eta dokumentu honetan jasotzen ditugun zerbitzu batzuetan pentsatu dugu.

Baina hauetatik harago, guri idaztera edo gugana hurbiltzera gonbidatu nahi zaitugu, bururatzen zaizun edozein ideia edo ekimen interesgarri iradokitzeke.

Ahal den neurrian, kontaktuan jarraitzeko aukera ematen badigu, pozik ekingo diogu.

Besterik gabe, oraingoz eskaintzen dizugunarekin utziko zaitugu.

Besarkada bat!

Zeintzuk dira kasturte berrirako zuretzako ditugun zerbitzuak?



KIROL GUNEEN ERRESERBA

Nahi izanez gero, **ikastolako kirol gune batzuk, eskola orduetatik kanpo erabiltzeko aukera izango duzu:** atletismo pista, futbola, frontoia, ... zure eskura izango dituzu eta erreserba gure webgunetik egingo dezakezu.



HITZALDI INTERESGARRIAK eta EXPERTIA PROGRAMA

Aldiro guraso, bizipen eta ezagutza aberasgarriak dakartzaten **profesional eta pertsona ezberdinen hitzaldiak antolatzen ditugu.** Hauen edukiari adituz, zuretzako interesgarriak litzatekeenetara gonbidatu nahi zaitugu. **Bestalde, zuk zeuk ere bizipen eta ezagutza aproposak izan ditzakezu, gure ikasleekin partekatzeko aberasgarriak izan daitezkezanak.** Alde honetatik, gure Expertia programaren hizlari bezala ere ikastolara etorri zaitezke. Ikasleentzako, zure ikuspuntua eta bizipena, hurbila eta baliagarria izan daitekela uste dugu.



FAMILIENTZAKO ZAINZA EDO ESKOLA LAGUNTZA ZERBITZUAN LAN EGITEA

Familiantzako seme-alaben zaintza eta eskola laguntza zerbitzua eskaintzen ditugu eta horretarako zuetariko askok esperientzia eta gaitasun aproposak dituzuela badakigu. Zuentzat lan esperientzia izan daiteke eta familiantzat laguntza paregabea. Bizitza etapa ezberdinetan zaudeten eta Lauaxeta Ikastolaren parte zaretenen arteko harreman polita.



IKASLE OHIEN LAN POLTSA

Aldiro ikastolan bertan lan aukerak sortu daitezke edota ikastolan, kanpoko lan eskaintza baten berri izan daikegu. Eta agian hortarako perfila izanez gero, zuretzako interesgarri izan daitezkeen aukerak sortu daitezke.

Eta nola izan dezakezu eskaintzen denaren berri?

Aurreko zerbitzuren batetan interesa izanez gero, gure webgunean Ikasle Ohi (Alumni) bezela erregistratu behar duzu:



Hortaz gain, **zurekin kontaktua mantendu nahi genuke eta baita zuk ere ikaskideekin harremana mantendu ahal izatea. Horretarako ondokoak proposatzen dizkizugu:**

Ikasle ohien Linkedina



Ikasle ohien atala, gure blogean



Aurrekoetaz gain, ikastolako sareak orokorrean ere kontsultatu ditzakezu:







LAUAXETA
IKASTOLA

lauaxeta.eus